

EVSKALERRIKO BERTSOLARI GAZTEEN TXAPELKETA-80 II LAVAXETA SARIA

URDULIZ
Ekaina 5 - Ordua 11,30
Proba-lekuan

LEZAMA
Ekaina 22 - Ordua 11,30
Pelota-lekuan

MUNGIA
Uztaila 6 - Ordua 11,30
Pelota-lekuan

BALDINTZAK:


- Txapelketa au Euskalerni osoko bertsolari gazte guzientzat zabalik dago.
- Lehenengo sario biatan zuntzurik gabeen lorzen daben sei bertsolariak partatuko dira zortzen sarara.
- *Gaiak:* bertsoak, bertsoak, bertsoak, bertsoak.
- Epakimaila, bere sasolan argituko diren lau gizonen esortuta egongo da.
- Epakimailaren erabazgaria aldearrietan izango da.
- Izenak erlian nahi dabeenok telefono onestara deitu behar da: 423 2600 (Bilbo), Erri Iratziak edo (943) 81 12 17 (Lolako). Erri Iratziak izen emotea Maiatzaren 31 az aurretik egin behar da.
- Aileketa edo ezbeharren datu sortuko bali bertsolariak aurretik jakinean egongo litzakez.
- Sari nagusi eta bikainak izango dira, eta, gainera, jom-etorriak ordinduta.



Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Couje en nosotros

Zenue urtea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**

BERTSOLARIAK

Gure ZER onen azalean aurtengo Bertsolari Gazteen Txapelketarako deia agertu dogu. Lauaxeta izena daroa, eta izen onegaz, bigarrena da. Eta ekiñaldiak Urduliz'n, ZER au agertzan danerako egiñak izango dira eta Mungia'n, urtenaz batera-antzean. Illeroko aldizkariak ez gara zabalkundea egiteko egokiak! Baiña Txapelketa onek zer pentsau emon dausku.

ERRIAREN AURREAN

Bertsolaritza oitura zarra dogu Euskalerrian, ez da atzokoa. Erriaren aurrean, erri-arazoak eta erritarren pozbideak agertzeko egokia izan da. Erri-arazoak, bai. Egoerarik mingarrienen bertsolariak erria argitu ta zuzendu dabe, erriaren samintasunak agertu dabez. Eta pozbideak. Plazetan, jaietako bazkal-osteetan, sagardau ta ardautegietan, zenbat eta zenbat ordu pozgarri igaro dabezan euskaldunak bertsoetan ekiten eta entzuten! Gure erriaren nortasun berezia ta gure izkuntzaren erreztasun egokia da bertsoa, eta orretan mundu guztian ia bakarrak gara. Gure erriaren nortasun berezia ta gure izkuntzaren erreztasun egokia da bertsoa, eta orretan mundu guztian ia bakarrak gara.

ISILTASUNEAN

Ogei ta amaseiko guda mingarriaren ostean, euskereak eta euskaldunak isillik egon-berra izan genduan. Urteetan ez genduan bertsorik entzuten. Baiña barruan daukana aldi egokian eta ez-egokian agertzen ba-daki euskaldunak eta laster agertu ziran bertsolariak, isillean eta agirian. Isillaldi aren ondoren, lenengotarikoa izan zan Basarri aundia eta berak geien baten kate sendoaz lotu zituan bertsolari zar eta barriak.

BIZITASUNEAN

Aspaldion bertsolaritzak bizitasun barria izan dau. Zergaitik aldi baten, praintsu, ez ziran egiten txapelketak? Bertsolarien auren arteko goraberakaitik? Aspaldion naikoa argi ikusi dala uste dogu txapelketa onein egokitasuna eta ekintza oneik euskerea indartzeko ta argitzeko dauken indarra. Bizi-bizi daukagu, zorionez, bertsolaritza!

ZELAKOAK?

Ba-dira bertsolari on eta jatorrak, zalantza barik. Eta ez gitxi be. Ez da galduko ba bertsolaritza ain arin. Bertso eder eta gogoangarriak entzun doguz irrat izan dan txapelta nagusian. Baiña ba-dira bertsolari epel eta erdiz-erdiskoak be. Tamalgarriak izaten dira. Ez daukaguz guztiok doe bardiñak eta onein zorakeriak be jasan egin bear izaten dira. Antzera jazoten da olerkarien arloan be. Zenbat olerki epel eta ganora-bako! Eta iñoz olerki eder bat irakurten dogunean, itxaropena sortzen jaku. Laster agertuko ei da *Oleri* aldizkaria, eta zergaitik ez antxiña izan zanaren antzeko Bertsolaria beste aldizkari bat?

GAZTEAK

Lauaxeta sariketa au bertsolari gazteetzat dogu. Ortxe dago egon be, bertsolaritzaren itxaropena. Gaurko gazteen artean zaletasun au sartu eta ekintzaille onak sortzen ba'doguz, jokabide eder onen urte batzutarako bizitza ziurtatuko dogu.

IKASBIDEA

EREDUAK

Ez da mundu onetan gizonak geitxuago edo gutxitxuago beste eredu dan gizonen batek eragin bakorik.

Ez dakigu bakar bakarrik gorengo malletara igoten. Gizon jakitunak edo urtenak nai ta nai ez bultza egi-ten dauskue, edo onerako edo txarrerako.

Onerako diran gizon aundiak eredutzat artzea bear bearrekoa dogu geu be goitik ibilliko bagara.

Euskal erriak ba-ditu eredu jarraibide aundiak di-ran gizon ta andra ugariak.

Euskal erria lurrez eta gizakiz txikia da, baina gizon aundi ugarien jaioterria be ba-da.

SAILLAK

Esate baterako or dagoz errigintzan urtenenak izan di-ran Elkano, Legazpi, Zabala, Garai, Irala eta.

Jainko-errigintzan ludian aundienetarikoak ditugu, Loiola, Xabier, Zumarraga, Antxieta, etab.

Baita or dira ainbat ertilari, margolari, idazlari, guda-lari, itsasgizon, politikari.

Ez dago gizon-ekintza motarik euskaldunen batzut eredu ta gorengo izan ez diranik.

GAZTEENZAT

Gaur ager erazi nai neuke, batez bere gazteentzat ere-du gorengo dan gazterik il zan eredu bat.

Bere jaia garagarillaren lauan ospatuten dogu bizkai-ko eleizan.

Balendin Berrio-otxoa zorunduna da gazteen eredu go-rengo ori.

Gaztea, baiezkorra da, ameslaria da, bere barruan da-
kar gauza aundiak eta nekezkoak egiteko naia ta su garra.

Berriotxoak be ba eban su-gar ori eta txiki txikitatik erabagi eban santutasunera eltzea, eragozpen guztiak gaurdurik.

Euskal errikoa danez, pelotari gorengo izango

BIDE-BILLA

Euskal errikoa danez, pelotari gorengo izango da, dantzari bizia ta bizkorra.

Erderazko eskolak ikastea nekeza da?

Bere euskera aaztu бага lenengoa izango da eskolan.

Seminarioko ikasketak ordaintzeko dirurik ez dauka? Aitagaz aroztegian lan egingo dau abadetzara elduteko.

JARRAIBIDE

Bizkai aldean abade asko ta asko egozela artzaintza errezago egiteko?

Bera mixiñoetara joango da, Jaunaren erria nekez ta lanez geituteko.

Tonkin'go mixioetan mixiolariak ilteko erabagi artu dauala ango erregeak?

Berak pozez eta abestiz samea eskeiñiko dau eta bere бага.

Espetxeratua ta Kristo ukatzen ez ba'eban martiri izango zala?

Berak pozez eta abestiz samea eskeiñiko dau eta bere odola ixuri Kristo'ren autorle izateko 24 urte zituala.

Euskaldun Kristau izateko erabagia artu eban txikita-tik eta euskaldun iraun eban (zelako eskutiz-kartak bere amari, euskera bigunean)!

Eta kristau lez bere maitasunik aundiena erakutsi eban: Ez dago ba, maitasun aundiagorik norberaren bizia maiteagaitik emotea baño.

Or daukee gure gazteak jarraibide miragarria.

Elorrio'n bere azurrak ikustatuaz indartu beiz gure gazte ederrak, erabagi aundiak artu eta bakotxak bere zer egiñean, jarraibide eder oneri jarraituaz.

Jarraibide ederrak ditugu euskal errian, eta orra or bat aundi aundia, Berrio-otxoa Balendin zorunduna.

ZU BALENDIN!

*Au edesti!
Zure barruan
maitasunez
grña txarrak
kizkalduak
O Balendin!*

* * *

*Mutik koxkor
ikasle on
dantzari on
eliz mutil
Jainko zale
Zu Balendin!*

* * *

*Gogo billa
zaletasun
ezin ukaz
zoaz ernai
Tonkin'eruntz
Zu Balendin!*

* * *

*Zure lanak
bear dau ba
euri gozo
landare aundi
azi daiten
O Balendin!*

* * *

*Berrio-Otxoa
euskal enda
goraldu dozu
lurrean
gure laguntza
izango zara
Jaun altsuaren
aurrean*

*Elorrión
sendiagaz
ezite onez
zuzendu za
betirako
zu Balendin!*

*Logroñon be
abadegai
apal askar
goren goren
eredu on
Zu Balendin!*

*Gotzain gazte
gogo billa
gau ta egun
txiro bakar
danen aita
Zu Balendin!*

*Jaunak nai dau
euri ori
zure odol
emonkorra
izan daiten
O Balendin!*

**GALLASTEGI'tar Kaul-
di**

CUBA

BARRUTIK

Danok ezagutzen dogu kubatarren gaurko egoera: oraindik asko ez dala, millaka batzuk Peru'ko Enbajadana sartu ziran, babes eske.

Orreitariko batzuk España ra be etorri dira, eta, izparringietan irakurri dogunez, bertan geratu diranen egoera ez da bat be pozgarria.

Baiña beste ainbatek ez dabe egoera au orrela aztertzen, ez ikusten.

Oneintzat Fidel Castro zoragarria da, eta bere ekintza eta politika aipa garrietarikoak dira.

Gaiñera, Fidel en iraultza eredu bat da eta, beraz, beste toki askotan be onartu eta jarraitu bearrekoa.

Arrazoi onek indartzeko Cuba ko irakaskintzaz zabaltzen diran paperak irakurtzea baiño ez dago.

Dana dala, eretxiak errespetagarriak dira, eta onela egin bearrean nago ni neu be.

Eta nire aldetik Cuba barrutik ezagutzeko, neuk neure begiekaz ikusitakoa aitatu dot.

Nire idazlanok ez dira liburu batzuen laburpenak, ez: nauk bizitako esperientziak dira.

ZELAN EZAGUTU DODAN CUBA

Cuba tik etorri barria nauzu, ira kurlu. Urte oso bat bertan igaro ostean, erri miñez oporrak igarotzera Euskalerriratu.

Orain dala urtebete, nire lantegiko zuzendariak aruntz bialdu ninduen, Marien izeneko erriko batera.

Nire lana emen egindako makina batzuk lanerako prest ipintzea zan.

Eta andik izan naz amabi illabete-tan.

NIRE AURRETIK BESTE BAT

Nire idazlanok egiagotzat artu da gizuzan, beste au be esan bearra dot: Nire aurretik, emengo tekniko bat be andik izan zala.

Onen egonaldia sei illabetekoa izan zan.

Oporretarako etortzean, ezegaitik be ez joiala eta, beste norbaiten billa asi ziran. Leenengoan lau aukeratu ginduezan, eta laurotatik norbait joan bear izango zala esan euskuen.

Betebearreko baldintza artean, bi jarri genduzan: emaztea be geugaz eroatea eta soldata-arloa.

Laurok gengoan prest, eta laurotatik neu aukeratu nindueanean, otzi keratxo bat be sartu jatan.

Zer egin?

Caribe ezagutzea interesgarria zan, soldata be ez egoan txarto eta, bide batez, turismo apur bat egitea be ondo etorriko jakun.

Gauzok kontuan arturik, baietz bildurri bat emonaz, joatea erabagi neban.

Besteak emondako barriak bildurtzekoak ziran izan, baiña gaztearen ausardia aundia da eta...

LEEN ERAGOZPENAK

Leenengo betebearreko baldintza pasaporteak Cuba ko Enbajadara eroatea izan zan.

Baiña eroatea bakarrikez, neuk be bertara joan bear izan neban.

Eta ona emen, laio eta azpikeria!

Cuba ko enbajadara eltzean, alkar izketa batzuk izan bear nebazan. Zertaz? Euskalerriko egoeraz.

Zer ete dauka zer ikusirik Euskalerririk Cuba'gaz?

Orrela da, baiña Cuba'ra sartu nai daunak, danetik igaro bear dau.

A inbeste azpikeri ikustean, urduri jartzen asita nengoan.

Ez nekian zertara etozan itaun areik.

Baiña jasan-bearra egoala eta, Cuba tarren eguneroko jokabidea izango zala eta, egin genduzan egin bearrekoak.

Azkenean, ordu luzeak bertan igarostean, izenpetu eustezan Cubara sartzeko paperok.

BIGARREN ERAGOZPENA: EMAZTEA

Naiz eta aurretizko baldintzetan emaztea eroatea onartua izan, ordua eldu zanean, ez egoan emaztearen tzat neugaz batera joateko baimenik.

Noren errua edo zer dala eta?

Cuba tarren eritxian, Lantegiko zuzendarien uts bat zan: ez eukin nire emaztearen datorik eta ezin ja kon txartelik emon.

Au ikustean, nire asarrekuntza agiria zan, eta beragaz ez ba zan, ez joateko erabagia artu neban.

Agertu be egin neutsen, eta baretzeko, joan ezik nire lantegiak egunoro ebazan dirugaltziteak aitatu euste zan.

Lantegiko zuzendaria kanpotik ebillen eta ezin izan neban ezer egin.

Azkenean, euskaldunaren itza emoteko eskatu eusten, emaztearen tzat be zortzi egun barru paperak konponduko ebezala aginduz.

(Jarraitzeko)

Piru LEGARRETA

OKERREKO BIDEK

Idazlan au idazten dodan unean gure Erria momentu txar batean aurkitzen da, ez dakit «ZER» au plazaratzen danean gauzak aldatu egongo diran. Ori da nere asmoa beintzat.

Madril'go Gobernuak neurri* batzuk artu dauz emengo arazoak konpontzeko ta beti lez okertu* egin da, beti bezela, indarkeriaren aurka egiteko, indarkeri geiago ekarri dau eta birtartean euskaldunak edo Erria, len bezela edo txarrago dago, bildurtuta ta zearo* zapalduta.

* * *

Len Erria bildurtzeko «estado de excepcion» bat eratzten zan, orain ostera, polizi berezi eundaka batzuk

biatzen dabez Fuzkadi'ra ta eurak arduratuko* dira lan orretan, sekulako ibillaldiak egiñaz Euskalerriko errietatik ziar «tanque» ta guztiz. Beraz oraingoak ez dau «estado de excepcion» bat emoten, «estado de guerra» baiño.

* * *

Diñoenez arrolioa* gero ta gitxiago gelditzen da munduan, au dala ta, neurriak artu bear dira al danik gitxiengastatzeko, baiña beti jazoten dan lez neuri onek batzuentzat bakkarik dira, besteak len baiño geiago

gastatzen dabe, bestelan orra oraspaldi onetan Bilbo ta Euskalerrio soan ikusten diran polizi berebillak aurrera ta atzera gelditu barik. Itxuraz, orrek Bilbo'ko itsasadarreko* ura erabiltzen dabe.

* * *

Gobernuak poliziari izkillu*, berebil eta jantzi barriak emoteko gastatzen dauan dirua «Seguridad Social» eta sua amatatzeko serbitzu barriak sortzen eralgiko* ba leu, gauzak beste era ezbardin* batean egongo litzakez.

* * *

EUSKALDUN BARRIENTZAT OARRA

Bear bada jakitun egongo zarie baiña ba'da ezpadan gogoratuko dautzuet gure Alkartek «Guipuzcoano» diruetxearen* laguntasunari esker, 31 alkarrizketaz osaturiko «ALKARRIZKETA» izeneko liburutxuak, bigarren argitalpena* ikusi dauala. Idazkitxo* au, zuk bear dozun askatasuna lortzeko oso interesgarria dalakoan gagoz. Gaiñera, «Guipuzcoano» diruetxeareki esker, duan* banatzen* da.

Orain iñoiz baiño polizi geiago dagoz Euzkadi'n, baiña lapurrak, droga-zaleak eta zikinkeri guztiak be iñoiz baiño ugariago agiri dira gure artean. Zer gertatzen da emen? Zertarako ainbeste polizi gure artean zikinkeri orrek kentzeko gauza ez ba dira?

IZTEGIA

Beintzat	= <i>al menos, por lo menos</i>
neurri	= <i>medida</i>
okertu	= <i>confundirse</i>
zearo	= <i>completamente</i>
arduratu	= <i>encargarse</i>
arrolio	= <i>petrdleo</i>
itsasadar	= <i>ria</i>
izkillu	= <i>arma</i>
eralgi	= <i>gastar</i>
eraiki	= <i>construir</i>
gaixoetxe	= <i>hospital</i>
diruetxe	= <i>banco</i>
argitalpen	= <i>edicion</i>
idazki	= <i>libro</i>
duan	= <i>gratis</i>
banatu	= <i>distribuir</i>

* * *

Sarritan entzuten dogu irratan, telebisioan eta izparringietan, Euskalerriko erri batzutan «casa cuartel» barria eraikiten* diarduela. Ia noiz entzuten dogun, erri orreitan gaixoetxe* barri bat egiten ari dirala, edo Cruces'en dagon leku-arazoa konponduta dagola!

ZANGRONIZ

AZPEITIA'TAR JULENE

(G. B.)

Euskaldunak barri atsekabetsua izan dogu antxiña ez dala: Azpeitia'tar Julene idazlea ta euskalzalea, euskaltzaiña ta irakaslea il zala.

Julene'k gure aldizkari onetan be idatzi eban, orain urte bete, gitxi gorabera.

Zumaia'n jaioa genduan, 1888'ko urtarrillaren 8'an. Len esan dogun lez, Euskaltzaindi'koa zan eta iñoiz «Arritokieta» ezizenaz idazten eban.

«Jakintza», «Euzkadi», «Euskera», «Egan», «Zeruko Argia», «Karmel» eta «Zer» aldizkarietan idatzi eban.

Guda-denporan Burgos aldean egon zan irakasle bezela, ango erri txiki batean.

Beti izan dau doai berezi bat umetxuentzako gaiak idazteko.

Berak idatzitako liburuen artean, oneixek dira garrantzitsuenak:

«Osasuna, merketza ta janaritzza» (liburu onek Euskaltzaindiko sari bat lortu eban 1920'an). Beste idazlan batzuk: «Azeri jauna», «Amandriaren altzoan», «Umien adiskidia», «Zuentzat» eta abar.

Gipuzkoa'ko euskal irrati batzutan be egin eban lan. Julene buru argikoa zan eta erri-euskerearen maitale amorratua.

Julene'k itzi dauskun utsunea betetzeko, danok arduratu bear gara, bestelan gure euskerea pikotara doa.

Agur Julene eta lasai egon. Euskereari buruz zuk pentsatzen zenduan lez pentsatzen dauan jente asko dago oindiño eta lanean jarraituko dogu.

IBARRA'tar Berbarido'k

EUZKERA

EUZKERA... ze izkuntza ederra!
Bere samurtasunean gozoa eta bere gozotasunean maitekorra!

Bai! Benetan maitekorra gutzat!

Orregaitik, euskaldun guztiok gure eleari bear dauan zabalkundea emotera bearturik gagoz.

Eta ori zelan lortzen da?

Zintzotasunik aundienaz, etxean, gizartean, eta, batez be, lagun-artean euzkeraz itz egiteko saiaturu. Tamalgarriz, erdera geiegi egiten dogu gaztelarrakin, lantokietan, jolastokietan

eta edonun, gure euzkerea atzeperatuta.

Eta gero, euzkerea gaitza dala eta mintzatzeko erreztasunik ez daukagula esaten dogu.

Jakiña! Euzkeraz itz eginda, gure nortasunari agerpena emoteko, gogorik ez dogulako eta zaila aurkitzen dogulako, alegintzen ez ba'gara, zer egin bear gogu euskaldunok?

Eta EUZKADI gure ama lurraren nortasuna nun gelditzen da?

Izan gaitez euskaldun jatorrak eta goratu dagigun beti gure izkuntza,

izakera ta oiturak, EUZKADI gure aberri maiteari zor jakon nortasuna, agerpena eta bear dauan zabalkundea emoteko, erriarentz eleak garrantzirik aundiena dauala eta elearen aurka dagoana bere amaren aurka dagoala gogoraturik.

Ez aitzu egundo esaera au: Euzkerea aitzu ez daiten, erderaz itzik ez egin!

BADIOLA'tar Imanol'ek
(Ondarroa'tik)

IZTEGIA

ZUBIKARAI'RI OARRAK

3) Azkueren iztegiaren "mugak" gogotan ez eukitzea edo:

IZTEGIA"n Azkuek ez ebazala jaso:	Nik: ez... ere
albateta	aldateta (albate bai, aldate ez)
apetaldi	astiñaldi, eurialdi
atxarrain	atxalasan, atxolatu
besigute	antxoate, eta antzekoak ere ez
deilari	auzkalari, eskulari, erremuskalari, erremusinalari
despiska	desarrazoi, desbistatu, desenbarka, desenrola
dsastada	dzingada, dzirdartada, fitada
berandutu	aizetu, albatu, baretu...
enplastatu	
anka egin	anka sartu
anka egin	ankame
ari meia	artotarra, artobarri, artogorri
artobero	begiak urten, begiurten
brixak urten	burutik orpotaiño, goitik berako
burutik berakoa	

AZKUEK berak esandakoa:

"Con la misma espontaneidad que brotan de ZEU estas tres sign fcativas palabras ZEUTARTU, ZEURETUy ZEUGANDU, pueden brotar millares y millares tanto de este sufijo (-TU) como de otras particulas fecundisimas de nuestra lengua". (Parrafo X del Prologo).

"... pero desde luego, se puede asegurar que faltan no pocas por recoger, habiéndose podido añadir, sin recurrir al neologismo, por lo menos tantas como contiene el texto". (Pdrrofo X del Prologo).

4) Esanaiairi buruz:

Itza:	"IZTEGIA"ko esanaia	Nire ustez...
alatean	azalean - flotando	azalean aoz gora -flotando boca arriba.
atzaparra	eskuko beatzak.	atza. Eta au, Azkueri jarraituz, ain zuzen ere.
baka	arrantzan, arraste-eran, bakarrik ibiltan dan ontzia.	Bai eta BOUa ere. BOUak ere bakarrean egiten dau arrantzan. (BAKA izena gallegoei zor)
bere bostean	(euskarazko azalpena argi dago. Ez ain argi gaztelerazkoa).	"bere bostean diardu, dabil" = <i>esta hablando a solas...</i> "bere bostean atara(egin) da" = <i>Lo ha sacado (hecho) el solo, sin l ayuda ajena...</i> (Onelatsu, beintzat. Baiña, "a sus anchas", bai, gero?)
bixika	neskatoen jokoa - <i>juego de niñas, con cositas.</i>	jokoa = bixikan (<i>sic</i>). Bixika bera, jokoa, bixikan, erabiltzekoa dan zertxoa (<i>cosita</i>). katxarritotara BIXIKAN... = olgau = aparike = bitxiKA?
tzen laguntzeko erabili dot.		BIXIKA = katxarrito(a) = aparikarako tresna = bitxia. Aldrabestuta edo ez, onela da Ondarroan asuntu au. Eta esateko-tan, "bixikagin, bixikagille" esango leukee ondarrutarrek, eta ez, adibidez, bitxigille. Ez diñot BIXIka BITXItik datorrenik. Argi-
dar-dar	<i>ukapen - negacion.</i>	Ez dar-dar utsik. Dar-dar egin, dardaratu... Eta alan ere, burua alde batera ta bestera erabiliaz. Bardintsu: `Bai, alan" = <i>ukapen-negacion. Bai, au alan da; baiña au esatean, atzamarren bat ere batera ta bestera mugitzen dau, ezez-kako keiñu baten.</i> Itzen gaiñera, testuingurua eta enfasioa eta seiñuak bear, orrelako zerok adierasteko.
despiska	arrañia saretatik askatzea.	Bai; eta amutik ere.
diamotxu	<i>diantre</i>	Orixe da xuxen-xuxen. Eta euskaraz? Onela ete da?: deabru diabru -• diabrotxu diamotxu. Edo, demoniotxu?
dra	igarri - <i>acertar</i>	"Dra egin". Nahiz eta ez agertu, EGIN bear da sartu. Eta, mesedez, Azkuek berak " <i>variante de dira</i> " esanda beste barik ez dau amaitzen "dra" onen azalpena. Berau izan geuan, ba, errongarieraren leen klasifikari eta ikertzaille azpergabea.

dramio	nor bait oratu - <i>alcanzar a alguno</i>	Dramio egin. (Art - lapurtu ere bai...) (Dranbio egin ere esaten da).
erlaizea	olatu txikiak jasoten ditun aizea. <i>Viento flojo.</i>	Ain zuzen ere, dana bestera. Au da: aizeak jasoten ditun olatu txikiak. Ur mea dagon tokitan izan ezik, olatuak ez dira ezaten aundiak, baiña bai zarratuak. ("ardi zuriak", "zuriak", "corderos"...) <i>Bai, baiña "erria emon", "erriatu"...</i>
erria	beratu - <i>arriar</i>	Inperatiboan, "erria!" = larria! Baiña, baita ere "enplasta" eta ez enpiastatu! Dirua erriatu ("diru erria") = dirua emon, ornidu... <i>pagar, contribuir...</i>
erru	eutsigarri - <i>tentdculo</i>	Ez orixe, eutsigarriA, <i>El tentdculo</i> , baiño. Azkuek jarri ebazan orreek erru izenari ezarri eutsazan, eta ez ondarrutarren "ero -a = = erru" izen sintagma orri. ERRO itzari 60 lerro damotsaz. E 50.1e-roan: 5° (Bc, G-zumay), <i>tentdculos del pulpo, jibidn, etc.: tentacules du poulpe, du calmar, etc.</i> Mutillak, el

* • =>

5) Otsizenak, utsik, aditzatzat jarrita:

		Azkueren terminologiaz: <i>"Locuciones verbales operativas"</i>
"IZTEGIA"n		
(dar-dar dsanga	ukapen-negacion uretara jaurti norbait... <i>saltar al agua para nadar</i>	dardar egin; dardaratu). (Ez eñ dardar burusi) dsanga egin
dsapart dra dramio	gogor oratu <i>igarri-acertar</i> nor bait oratu	dsapart egin dra egin dramio egin (dranbio egin)

• • =>

6) Inprentautsak edo (s-z kontua utsiz):

"IZTEGIA"n	esan bear...:
ardau diru	ardaun diru
bataparrabi	bataparrami
atzazkal	atzandel (oso erabillia)
bunbat	bunbada, bunpada

• • =>

7) "... erri onetan, bere ugeneroko jardunetan erabilten diranak". Ba, "IZTEGIA" orretan agertzen dira itz ezezagunak eta bizpairu oso gitti erabiliak.

a) EZEZAGUNAK: agagain, agaka, ainguratoki, aize oial, artalakatza, atabaka (1), atzazkal, bazkaldari, bazkarraldra, bunbat, deilari, deizale.

b) Oso gitti erabiliak:

albateta	onen orde: korretako atetik, ate txikitik..., sartu, urten...
ardaun diru	gaur ez dabe egiten ardaun dirurik, eta askok ez dakie zer ZAN ori.
azartona	tamala da au galtzea, oso itz esankorra da-ta.

• • •

(1) Ondarroan: atabakera. Gaur ez dabe eroaten itsasora tresna ori. Izen ori gazte ta umeek dakien ere..., ziurrago ez.

d) "... galdu ez daitezen be, lagunartean zabaltzea bidezko deritxat".

"B I L I N T X"

Indalezio Bizkarrondo

(1831-1836)

Eun urte igarota, urak euren bidean.

Zerbait aldatu ba'dot be, bertso zarra etorri jat gogora, Bilintx zarraren bertsozko eta osteango Ian guztiakaz ornidutako liburu lodi ederra ikusita.

Bai, Bilintx il-barritan sortutako asmoa, orain, eun urte geroago egi eder biurtu da. Urak ba-datoz euren bidera. Nok esango eban, orraitio, idazle onen bertso guztiak argitaratzeko, lenengo asmoa erdaldun batzuen izango zala? Guzurra dirudian arren, alantxe da, asmo ori asmo utsetan gelditu ba'zan be.

Bilintx'en bertsoak ez dira izan ez-ezagunak, egia esan. Asko, egillearen egunetan, bertso-paperetan edo antzekoetan zabaldu ziran eta erriak bereak eginda gelditu. Liburu baten baturik be argitaratu izan dira, urteak geroago, Euskal-Esnaleak antxiñatxo, eta Auspoak, bertsolari liburuen ateratzailleak, oraintsuago. Oraingo argitaraldiak, osoz eta ederrez, lenagoko guztiak aztu eragiten deuskuzala esan bea'. Dana dago osoago, ugariago, liburu onetan: Bilintx zanaren bizitzea, bersozko lanak, bakotxaren edo geienen soñu la guzti, eta abar.

Bilintx jatorrari egin izan jakon omenaldi au, eta euskalzale guztioi egin jakun opari aberats au, Donostia'ko Udal-Aurrezki-Kutxari eta Aita Zabala jesuita bertso-batzaille bizkorrari eskertu bear deutsegu.

GIZON XELEBREA, BILINTX

Donostia'n, 1831'n jaiio, eta 1876'an, euskaldunoi Foruak kendu euskuezan egunean berean, karlisten granada batek zaurituta gero fl zan gizon au, gizon xelebrea izan zan Donosti zarrean, bapateko erantzun zorrotzak emoteko buru zorrotza eukana.

Ez dakigu nondik etorkon bere ez-izen edo gatx-izena, Bilintx. Alan nai olan, ez eban beti ez-izen ori gogo onez entzuten. Bein lagun batek, taberna-zuloen batetik ondotoxo edanda urtenda-edo, kalean agur egiten deutso: Agur, Bilintx. Bai onek laster eta egoki erantzun be, erdi zabuka joian ari: Agur, Balantx.

Ez ei zan bera itxura eder-ederrekoa. Gaiñera gazterik gelditu zan buru-soil, burua ulle gaberik eukala. Eta bein batek: «Ire buruak gaztaia jirudik, dana zuri». Eta Bilintxek bertatik bertara: «Ireak, barriz, illargia zirudik, dana illez (ullez) betea». (Donostiarren illea gure ulea da).

Bilintx atezain egoan baten, teatroan sartu-urten bat egiteko baimen eske joakoz lagun bi:

— «Sartuko al gara?»

«Eta Bilintxek:»

— «Bai zartuko zerate, urte asko bizi ezkeru».

Baiña xelebrekeririk entzutetsuena bein, asto baten gañean joian Domingo Kanpaña bertsolariari bertsoz egin eutsana:

«Asto baten gañean / Domingo Kanpaña. /
Ez zijoak utsikan / mando orren garia. / Azpian
dijoana / mando dek baña, / gañekoa ere badek
/ azpikoa aña. / Mando baten gañian / bestea,
alajañal»

AROTZ ETA ATEZA

Aita Zabalak argitasunik asko emon deusku. Bilintx arotza izan zan, urteetan iñoren kontura ibillia, Teatro Zarreko atezain egin eben arte. Arrezkero Teatro Za-

rrean bertan bizi izan zan eta bertan ipinten dau bere aroztzeria be. Azkenengo amar urteak bizimodu onetan egin zituan. Atezaiñ izate orrek ez dau esan gura, orraitio, ateen itxi-edegille besterik ez zanik. Atezaintza orrek bereak zituan teatroko argien kontua, eta ango oial eta tramankulu guztien ardurea: dana zaindu, dana bear zanean erabilteko moduan ondo gorde, gauzeztuak konpondu, eta abar. Gainera, Teatroan bertan dendatxo bat ipiñi eban, liburuak eta, batez be teatrolanak eta saltzeko.

EZ ZAN ESKOLA BAKOA

Eskola gitxiko, edo bape bakotzat emon deuskue batzuk gizon au. Alan Curros Enriquez galziarrak, Bilintx il zanean Donosotialdetik ebillenak. Baiña galziar onek ezagutu ete eban eguneroko papeletatik baiño beste iñondik? Ezetz dirudi. Ez deusku, ba, berak Donosti Zarreko semea ango inguruko mendi baten bake osoan bizi zan baserritar egin, bere omenez atera eban olerki baten? Eta txabola orretan granada batek zaurituta il zala gañera? Ez zan, ez, ain baserritarra, ez ain eskola bakoa. Liburudenda eukan onek ez zituen liburuak besterantzat bakarrik nai, beretzat be bai. Ondoan ezagutu ebenak esan ebenez, orduko olerkari asko ez titan irakurten ei zituan: Trueba, Campoamor, Aguilera, Becquer, Heine eta abar. Madrildik ango egunkari baterako (La Correspondencia) albistari be, egin ebenak ez eben eskola gitxikotzat artu. Eurok izan ziran il ondoan aren bertsoak argitaratzeko asmotan lenen asi ziranak.

IRRI-BERTSOLARI

ETA MAITE-BERTSOLARI

Erdal-bertsotan ikasia izan arren, euskal-bertsolarien sena ekarren Bilintx'ek askoz geiago. Eta gaiak geldian ausnartu eta papelera aldatzen dituenetakoa geiago, lagunarteko eta bapateko bertsolari baiño.

Bertso-paperik lenengoa 1852'koa ezagutzen deustagu, Donostiako inauteri edo aratusteetarako egiña. Esan bearrik ete dago Bilintxek bere barrua ustu eta agirian ipiñi dauala bere bertsoetan? Aldarte oneko gizona eta biotz samurrekoa agiri jaku eurretan. Gizonen alderdi barragarriak jaso ta bertsoetara irazteko begi zorrotza eta luma bizkor zeatza erakusten ditu. Baiña irri zurizko umorea, beztunik bakoa, da Bilintx'ena. Maite-bertsoetan, barriz, berak iñoz autortua agiri dau: ezin ebala berak mundua andrazko barik ikusi. Onek, bertsolariaren damu gorritan, ez eutsoen esker andirik erakutsi. Andrazkoen ezezko biribillik artua dogu luzaro. Baiña orduan be, bere aldarte ona ez dau galduko. Bere ail edo aieneak mingoztasun barik urtetan deutsoe. Alan be, bere bertsoen eztiatz, zeozer lortu eban: berrogei urte egin baiño len-txoago ezkondata daukagu.

Irri-bertsoak izan naiz maitezkoak izan, bietan maixu dogu benetan. Neke barik urtetan deutsoela dirudi, iturriari ura lez, txori kantariari bere txorrotxioa lez. Erreztasuna erakusten dabe, baiña askotan nekearen nekez, ekiñaren ekiñaz lortutako ekreztasuna, bertsoak bein ta berriz orraztuta. Orixe agiri da Bilintx'en eskuzko idatzki batzuetatik.

POLITIKAZKO BERTSORIK?

Bilintx'en egunetan, bertsolari askok jo eben politikazko bertsoetara, batzuen nai besteen alde. Baiña beroni, baitzen aldeko politikakoa izan arren, olangorik ez jako ezagutzen. Eta ez jako ezagutzen, ezbai barik, olangorik idatzi be egin ez ebalako. Bake zalea zan, ez burrukalaria. Ez ekian gizonen artean gorrotorik ez minik sortzen. Biotzak ez eutsan olangorik agintzen. Beste bertso asko, bai, badakigu galdu egin jakuzala. Esaterako, erderatik euskeratutako poema barragarriko bat (Mierdēpolis), bere barruak eta aldarteak eskatzen eutsoenetakoa, baiña politikazkorik ez. Eta gero, Foruak galdu zirala-ta, illetak jotan asiko ziranean aldiak etorteko egozan, zorionez.

OMENALDIRIK EDERRENA

Liburu au atereaz, Donostiak Arrezki-Kutxaren bi-tartez, omenaldirik ederrena, ezin ohea, egin deutso bertako seme jator bati. Egia esan, ez dau izan omenaldi bakarra: bost edo sei egunetako itzaldiak, Bilintx nor dan argitu eta jakiñazoteko; diru lodizko sariketak, euskerazko nai erderazko idazlan eta gazetari-lanentzat. Onek be, guztiak, Aurrezki-kutxak argitaratuta.

Baiña Bilintx'en nortasuna ezagutzen obeto laguntzeko, zer egokiagorik Donostiar argi onen Ian guztiak argitaratze au, eta aren bizitzako azi-orraziak argitze au baiño? Lan ederra Donostia'ko Udal-Aurrezki-Kutxak egin deuskuna. Diru-babesa ortik etorri da. Baiña norena izan da nekea, bertsoak batzen eta bertsoegilearen bizitza argitzen? Bertsolaritzak ainbeste zor dautsan eta merezitako eskerrik izango ez dauan Aita Antonio Zabala'rena.

Aita onek zeatz eta oparo bete dau bere egitekoa. Orretarako zer ez dau arakatu? Eleixetako eta Udaletxetako agiri, an or emengo paper zar, urte areitako aldizkari, egunkari eta naste. Olan batutako barri guztiak, gero Pelay Orozko jaunak txukun eta osoan erderaratu ditu. Bertsoak eurak, barriz, askotan bi eta iru kopiatan eskuratatu jakuz, Santesteban'ek, beste musikalaria batzuk eta erriak ezarritako doñu ta guzti. Eta liburua txukunago an egiteko, pintatzaille-talde batek dana apaingarriz edertu dau. Egin ete zeitekean geiago edo ezer oberik?

Eun urte igarota, emen dogu Bilintx bizi-bizirik, oso-oririk.

L. AKESOLO

SOR MIÑA

Zuri begira nago miñetan,
euzkotar zoragarria,
ikusiaz maitekorrago
sortzen jat zure argia.

Berea nau-ta, berea nau-ta,
Euzkadi'ko ama lurrak,
zureak dira, zureak dira
nire mamin ta azurrak.

Zer dozu izate bikain ortan...?
Gizontasun berezia...
Apaltasunaren maitasuna...
jakiturizko argia...?

Ama ta semeak maite gara
etxeke nortasunian,
kateiak urratuz mendian
SOR-ARAUAREN bidian.

Nondik artu dozu eder ori...?
Jaungoikoaren eskutik...
Asabeen odoletatik...
Gure arkaitz iturritik...?

Artu genduan eder guztia,
maite dogun Aberria,
arriz, burdiñaz eta biotzez,
garretan dago maitia.

Euzko gizadiko lora orrek,
non, dabe euren baratza...?
Oi nire lur maitegarrienak
guriñetan dau bizieta.

Askatasuna, izkuntza, lana,
gizoneen etorkizuna,
euzkotarra, au da zure itza,
egizko anaitasuna.

Zer dauka zure amak zelaian...
Zer adur dauka mendian...
Arkaitz gaillurrak gora goraka
Euzkadiko lur gaiñian.

Biziak bere sustraiak ditu,
gureak euzkotarrenak,
zuzentasun erpeak nai ditu
euzko semerik onenak.

Orleia ikusi dot zelaian
Itxaropenez miñetan,
euzko gaztedi zabala dago
maitasunezko garretan.

Maitatzen zaitut anai maite,
odolak biotza aiña,
Euzkadi guztiarentzat daukat
Aberriaren sor-miña.

Nire maitasunezko kabia,
itxaropenaren garra,
lerden, argi, zaintsu sortu dozu
lur onetan euzkotarra.

PAULIN

AZTERKETA

BAKARTEDEKO ELE

Gure ele au, bakartadekua ei da, alan diño e jakintsu gustiak, ta egia esan alan ikusten dogu guk, jakintsuak ez geranok, sekula entzun bako itz «barri» bateri, an asten gara kaskarrari azka. Esan daigun ba URRUTUZKINÑ, bereala asiko gara azterketan URRUTI-ITZ-KIN eta ikusten dogu izan biar dala urrutira itz egiteko gauzen bat, tutulon bat, adar kirten bat edo antzeko tresnen bat, dana dala argitasunen bat billatzen dogu alegin aundi barik ta batez ere beste izkuntz ta eleztiz billa ibilli barik.

SABIN'DARROK

Arana Goiri euzkal azterketan asi zanean ta batez ere gure erriaren izen egoki bat aukeratu ebanen, EUZKADI da euzkotarren ABERRI'a, esanaz gizon «jakintsu» gustiak, Unamuno, Baroja ta abar, ludi ontan entzute edo ospe aundikoak, griego, latiñ ta izkuntz zarraren azterkariak, ez eben ontzat artu EUZKADI ta ABERRI, EZTA Azkue jaunak be, ta, nik diñot, gaurko Sabin'darrak dirala esaten dabenak, Sabin'en omenaldietan aurrenen agertzen diranak, Koldo Mitxelena, Martin Ugalde ta abar, Sabin'en garaikoak izan ba'litzaz, zelan artuko eteben euzkal azterketa ori?

KATRABIL IZKUNTZA

Gure ele maitia, geure geurea dan lez, geuretzako nai dogu, geure artean itz egin nai dogu, HUM-

BOLDT jaunak esan ei eban, emen mendi tarte ontan egoala abenda zar bat katrabillezko izkuntz bategaz, baiña euren artean alkar oso ongi aitzen zirala.

Gure izkuntza katrabillezkoa izan nai ez, nik, oso polita, erreza ta azterketa zabalekoa ikusten dot, ba, jatorrizko itzen bat agertzen danean, ulermenidazburu'rik euki ez arren, buru-auste aundi barik zeaztutzen dot, ta, nik lez edozeiñek artzen dau argibidea zer esan nai daben itz «barri orrek».

NEURE ERITXIZ

«ZER» aldizkari ontan, gurutz-izkiak agertzen asi dira, ta, ikusiko dozue ba azkorentzako itz barri bat, itz au GABEUKATZ da, GAU-TA-EGUN-ATZ, nik uste dot ORDULARI baño egokiagoa dala, orregaitik ipintzen dot gurutz-izki geienetan GABEUKATZ.

Beste itz «barri» bat agertuko da gurutz-izkian, emen gabiltz ba nola esan biar dan TELEVISION, orain arte agertzen dana da asikeran beti TELE..., ba nik auxe adierazi dot: Izan bear leukela URRUNIRUDIZKIN-URRUN-IRUDI-ITZ-KIN.

Saiatu gaitezen ba izen egokitsu jator bat billatzen, sarri-sarri aupian ibiltzen dan itza dalako, ta, euzkera geure geurea dan lez, ta, geuretzako bakkarik nai dogun lez, beste HUMBOLDT barri bat agertzen ba'da or-konpon, gu, geure artean aditxuko gara.

SAN ANTONIO BIZKAIAN

Padua'ko S. Antonio, santu aundia benetan.

Beratzaz millaka itzaldi egin dira eleizetan; margolariak, esate baterako Goiak, margazki ederrak margoztu zituen; idazlariak, or dago gorengo idazlari dan Emilia Pardo Bazan, Padua'ko Santuaren bizitza idatzi ebana.

Leon amairugaren Aita Santuak esana da: S. Antonio mundu guztiko santua dala.

Izan bere olaxe da.

Zoaze mundu zabal guztira ta eliza katoliku geienetan aurkituko dozue santu mirarigille onen irudia.

Bardin eta, bear bada geiago, Bizkaiko elizetan Erri ta errizka danetako lengo elizetan, or dago santu maitagarri au Ume Jesus bere esku artean dauala, ez bakarrik Franzisko'tarren elizetan, bera ordea orretakoa zalako, baita beste eliza ta elizatxoetan be.

Batez bere bizkaiko iru tokitan da maitatua santu au: SUKARRIETA'n, URKIOLAN ETA BILBOKO SAN ANTON'en.

Sukarrietan, San Antonio'ren amama jatorriz emengoa zala, diñoelako.

Emengo danok dakigu, ikusia doguluta, bagillaren amairuan, Urkiola'ko Santutegi'ra igoten zenbatu ezindako gendetza ikaragarria.

Antxiñetatik Abadiño ta Otxandiano bitarteko mendi baten, Urkiola deritxin mendi orrek, S. Antonio Abataren (S. Anton) baselizatxo bat egoala, ta, bein baten, Padua'ko santua Padua'tik berekanuntz, ekaitz bildurgarri batek Artu ebalu Urkiola'n eta ekaitz orretatik iges egitearren S. Anton'en elizatxoan aterpetu ta gaua igaro ebalu, eta, il eta laster Aita Santuak S. Antonio santuen izendegian ipiñi ebanean, bere irudia Urkiolan zala.

Ordutik aurrera, gaur Rios'ko Miñolariak ederto barriztuta dagoan

santutegian goraltzen da S. Anton'egaz batera.

Biak oso ospatuak dira Bizakia, Araba, Naparroa, Gipuzkoa ta Ipar euskaldunen artean.

Ango alboerrietakoak txiki txikitatik ikusiak gara kristau aldra aundiak bide, bide txior, estarta, mendi-egaletatik zear Urkiola'runtz S. Antonio'ak ospatutera.

Bilbo'ko S. Anton parrokian sekulako jentetza izaten zan orain urte asko dirala.

S. Anton zaindarizat euki arren parroki ontako albo dirala.

S. Anton zaindarizat euki arren parroki ontako albo altara baten, Juan Mena irudigille goren gorengoak egindako Padua'ko S. Antonio'ren irudi bat dago, ta berak ekarten dauz eliza onetara millaka ta millaka kristau.

Egia da orain lenago baiño asko bere gutxiago. (Gogoratzen naz 1942'an, bagillaren 13'an berrogeta amabost mullatik gora etorri zireala). amabost millatik gora etorri zireala).

Egun orretan Bilbo'tarren ibillaldi bearrezkoa goiz goizetik gabaraino, San Antonio'ri ikustalditxo bat egi-tearren zala.

* * *

Jakiñekoa da orduan San Antonio'ganako deboziñoak sasi siñiste asko ebazala.

San Antonio askorentzat Jainkoa baiño geiago zan.

Eliza onetan bere irudia albo baten egoan, eta aldara nagusian Jauna agirian ipiñita egon arren be, bere aurretik, begiratu ta agurtu bere egin бага, S. Antonio'ren aurrekaldera joaten ziran.

Eskabide barregarriak egiten eustoezan santuari askotan, esate bate-

rako, neska batek pepeltxo au itzi eban aldara ondoan: S. Antonio, lortzen ba'daustazu, gaztea, mardula, ederra, irabazi-bide ona daben ta asko maitatuko nauan senargai bat, zure txiroentzat errial bi emongo ditut (senargai merkea benetan).

Ara zer iñoan beste batek: Matxalen, nire laguna, lanetik botaten ba'dabe, neu bertan sartzeko, bost pseta emongo dodaz pobreentzat (kristau usain bako eskabidea au).

* * *

Azkoz ez dakie S. Antonio biak banantzen.

Bein batean ondo jantzitako andra bat urreratu zan nigana, itanduz: Jauna, gaur baskal orduan senarragaz asarratu naz eztabaida bategaitik. Berak diño S. Antonio eta San Antonio santu bi dirala, eta nik, bat dala, gztetan San Antonio ta zartzaroan San Anton? Nork egia?

Andra, senarrak igarri. Bi dira bata egiptoarra ta bestea Lisboa'koa, Paduakoa Fernando zan baiña S. Anton aundiaren bizitza irakurtean bere izena aldatu ta Antonio izentzat artu eban. Biak dira aundiak, biak goragarriak.

* * *

Urteak joan eta urteak etorri, ekin ta ekin, emengo danak ulertu eben Jainkoa dala aundiena ta S. Antonio aren otsein bitartekoa bakarrik.

S. Antonio dala ta ezjala emen ugaritu ziran Jaun artzeak, autoritzeak eta baita milloika ta milloika diruak ez-eukien ogitarako.

Oso onuratsua izan da S. Antonio'ren maitasuna gure euskal-errian, bere eredu ta otoiagaz euskaldunen kristautasuna aberastu dau.

GALLASTEGI'tar Kauldi

EUSKALDUNAK IZAR-ARTEAN

MIKEL ETA AGURTZANE

Euskal erri bateko zelai luzenga baten erdian, 13 ta 12 urtedun diran gaztetxo bi, Mikel ta Agurtzane Anduaga izen abizeneko nebarrebak daurkiguz.

Euren baserritik, gurasoen lo kukutxoaren ordu berean urtenik, zelai alboan datzan basotxo baten, loren edertasuna begizatuz, mitxeletakaz lilluratzuz ta txori-txioak ta txinta zoragarriak entzunez bat, egurastu ta atsedean apur bat artu dabe.

Eguzkia goi-goian dago, baiña berealaxe lañotzen dira ingurumariak ta ume zurrak diranez, astiro samar ba'da be, etxeratzea otu jake.

AZPIL ARGITSUA

Ortan Agurtzane'k zertxobait artogatuta bai diñotso bere nebeari:

«Begira Mikeltxo, ez dozuz nabaritzen bat-bateko aizearen zarat-otsa ta an urrunean ortze urdin ta odei tar-tean argi-izpi batzuk?»

Ta nabeak besotik oratuz:

«Bai maitea, zer izan leitekela deritxazu, arrebatxo?»

«Begiztopen orrek barne-muiñetan zirrarrunkigarrria sortu, ta zer ezezagunak bildur-ikara emoten daust».

Ez estutu arreba, dakusgun argidun orrek egazkin zabal baten antza dakar, ta urruti kuskiñan naiz itzalberri (ziñean) ikusitako azpil sakon aundi itxurazko «Platillo volante» bat izan lei ain zuzen. Izar lokeen (zeruko kometeen) antzo bapatean dagerkigu-ta.

MEZUA

Argiaren bizitasunak zorabiatuta ta irabaiatuta legez izten dauz gaztetxoak. Andik laster zelaiaren zabalgunela lau kokatu oi da gure argidun ta ezkutuzko azpil ega

Amen baten bertatik ta adeitsu jatsi oi dira zerutar biztanle ausartak, ta euretariko buru danak bai diñotse maitekiro oraindiño erdi txunditurik dagozan neba-arrebei:

Ez bildurrik izan euskal gaztetxoak.

Gu «Izar-bide» izenezko izarbel ezezagunekoak gaitu

Ez dago eguzkitik ain urrin be.

Ori ta be ez dozue lurtarrok ezagutzen gure izarbela. Gizaldiak dira gure aitelenak ludira etorri, eta Euskal Erria lenengoz ikertu ebela.

AITOR IL-EZIÑA

Orduan zuen «Aitor», eritxon asaba zaarra ezagutu eben, baita onartu ere, bere ta zuen erriko aspaldi bateko ekandu zar ta garbiak.

Andik laster «Aitor» arbasoa il jatzuen ta guretarrek «Izarbide»'ra eroan oben bere gorpua, an illondu ta gan

Beragaz bat euskal gizon ta emakume adoretu batzuk, «Noe'ren kutxan gorde ziranen antzo», izarbideratu ziran, ta an beti betek diraun guztion Jainko altsuaren omenez, sasoi artako oiturazko illetak «Aitor»'en alde egin ebezan Gantzutu ondoren ta gure aurrerapidei esker, Aitor gogoangarriaren illotzak nolanbait lenbateko itxurea guztiz galdutzeke dirau. «Izarbide»'naugaritu ziran euskaldunak, ta ni be arein ondorengo ta zuen odolekoa nozue. Ez da arrigarria? Orrexegaitik natorkizue.

BARRI ONA

Gero urteen joan etorriaz bat, Izarbidetarrek konturatu ziran Belen'en Gaizkatzaile bat jaio zala, ta beste millaren bat urte igaro ondoren, gure orduko euskaldunensguramena tarteko zala, barriri be Euskalerriratu ziran.

A bai guretar euskaldunen benetako poza! Euskaldun geienak Kristo'ren jarraitzaile zintzo zintzoak ziran, ta aspaldi bateko ekandu zaar ta oiturak, Kristo'ren zerutar ikasbideei esker, geroago ta obeak ziran.

ZUEN LARRI-ALDIA

Gizaldiak gizaldiei darraie betekotasunerantz. Gu, orain be gure goitar argi ta eter bidezko tresna, irrati ta urrun-ikustailu aurrerakoiei esker, jakiñean gagoz luditarr euskaldunak jasan bear dozuezan gaur eguneko ara

ta latzak. Ots, anai arteko burruka negargarriak, maitetasunik-eza, batzuen egizko euskera baten aurkako jokaera narrasa ta abar luzetxo bat tamalez. Esaiezue zuen gurasoei guzti-guzti au. Ekin daiela zuen betiko ekandu zar, izkuntz maite errikoa ta Jainko ta urko lagun maitetasuna, zaindu ta jagoten.

BARRIRO IKERTZEN

Ba-goaz «Izarbide»'rantz 2.000'garren urteburuan zuengana barriren barri itzultzeko asmo biziaz. Orduko, nebarrebatxuok, gizob ta emakume eldu ta mardulak izango zarielakoan nago, ta zuen seme alaboi be, mezu, gaztigu berberak emoteko duiñak izango zariela. Euzkadi pakezko bat une aretan iderotzea gura izango geunke; askatasunez, egizko maitetasunez ta euskera biziz orniturikoa ta kui-kui gañezka egongo dan Euzkadi zoriontsu bat.

ERABTZUNA

Itxartu naz, gaztetxuek, ta nire ustez, nire ipuiñean, «Izarbide»'n oraindiño Euskal endeak tinko, zintzo ta sendo dirau.

Dirauko ete Euskal-Errian ere?

Zuena da erantzuna. Zuek biurtu zeinkie nire amets baikorra bene-benetako egi borobil baten. Beti arte maitak. Juen ameslari biotzekoa.

ARREGI'tar Josu'k

Eleberria:

TXOMIN AGIRRE

ELERTI-ARLOAN

Idazle batek bere barruko asmapenak agertu nai dituanean, bide asko artu daikez: Bertsoa, antzerkia, barruminezko olerkia (lirika), edestizko olerkia (epika), itz-erti (oratoria), eta abar. Olako bidea dogu eleberria.

Zer da, baiña, eleberria?

Gertaturiko edo asmauriko jakozizunak edestuz eta itz lauz idazleak bere oldozpenak agertzen dituan elertiaren arloa da eleberria.

Antxiña eleberri gitxi egiten zan, epopeia da elerti-arlorik zarena. Baiña epopeia ez da besterik itz nautuz idatzitako eleberria baiño. Gero eleberriak aldakuntza aundiak izan ditu, baiña jatorriz orixe: Elertian asieran itz neurtuz eta gero itz lauz edesten dan asmapena.

Aspaldion eleberriak ugaritu egin dira. Gogoratu Gaztelera Cervantes aundia eta oraintsuago Perez Galdos. Eta gaurko gure egunetan elerti arlo au Ego-Ame-

riketan agertzen jaku landara ugarri eta frutu eldu lez. BERE ALDIA

* * *

EUSKALERRIAN

Gure elertian be ba-daukaguz eleberrigilleak, eta ez gitxi. Ipuiñak eta eleberriak ondo joakuz guri. Mogel'en Peru Abarka izan leiteke gure lenengo eleberria eta gero ainbat arlo onetako liburu eder daukaguz gure elertian.

Idatz-arlo onetan gizaundi lez gure Txomin Agirre agertzen jaku: Bere aldi ta tankerakoen artean onena, zalantza barik. Munduko elertira begiratu ezkerro, ez onena baiña bai erdi-maillako onenen maillakoa, esaterako Pereda'ren mailla-inguruan. Eleberri oneik erderatu be egin bear ziran.

* * *

Idazle euskaldunak ez dabe izaten zer-ikusi aundirik euren aldiko idazleakaz: Gure Etxepare, berbizkunde eta «renacimiento» tankeran sartzen da, gure Bilintx «romanticismo» aldiko idazleen artean, gure Lauxeta «27'garreneko gizaldia»'n. Guzti oneik ez osoosoan, baiña ba-dauke aldi orreitako idazleen antza.

Eta non sartu leike, zein alditakoa da gure Txomin Agirre?

Zalantza barik «Realismo»-barruan, naizta bere «Añamendi'ko Lorea» kondaira-eleberria eta romantiku-tankerakoa izan.

Aldi orretan gaztelera elertian Pereda az Perez Galdos izan ziran nagusi: bata kristiñau jokabidekoa, liberala bestea; bata zarzalea, barrizaillea bestea; bata bizikera estu ta bideratukoa, nasaia ta nabermenena bestea... Eta idazle bi oneik ba-ekien alkarren barria eta euren eleberri bi «De tal palo

tal astilla» eta «Gloria» burruka baten agiria dirala esan lei.

Gure Txomin Agirre, eretxiz eta tankeraz, Pereda'ren kidekoa da.

Ez dakigu Txomin'ek Pereda'ren eleberriak irakurri zituan ala ez. Gaietan ba-dauke antza, baiña ez idaz-tankeran eta aria eroateko eran.

Pereda'k Itxas-gaizko eleberri bat egin eban, «Sotileza», eta legor-girozko beste bat, «Peñas Arriba». Eta Txomin Agirre'k be antzera: Itxas-girokoa, Kresala, eta lagor-girokoa, Garoa.

Ortik gora, idazle bien arteko alkarren antza laburra dala uste dot eta «Realismo» giroan bizi izatea naikoa dala antz ori argitzeko.

* * *

TREBEBIDEAK

Baiña zelakoa da gure idazle au eleberrigille lez? Ete dauka trebetasunik edo «teknika» egokirik? .Ete daki «nobelak» egiten?

Txomin Agirre eleberriak egiteko trebetanunez guztiz ona eta berak darabiltzan eleberri-teknikak gaurko-girokoak eta egokiak dira. Eta ezin ukatu, alde onetatik begiratuta, *Garoa* askoz ohea dala *Kresala* baiño.

Zeaztu dagiguzan trebebide oneik.

TOKIA: *Kresala'n* estuagoa da, Getaria'tik Bilbo'ra bitartea, Kantauri itxasoa iparraldean eta ardatza Ondarroa'n dituala. *Garoa'ren* «jeografia» zabalagoa agertzen jaku: Gaztela, Amerika, langille-artea... ardatza Oñati'n dala.

ALKAR-IZKETAK: Egokiak dira *Kresala'n*, *baiña Garoa'n* gaur be erabilten diran trebebidetarik agiri dira, esaterako: Lau norkiren artekoa, gizonak zuzatuz egiten dauana, norki batek ildakoagaz daukana (gogoratu oraintsuko «cinco horas con Mario» eleberria).

NORKIAK: *Garoa'ko* norkiak ugaroagoak dira eta batzuk ondo zeaztuak be bai, Joanes artzaia bera edo bere alaba lekaiamea. *Kresala'n* norki oso ondo zeaztuak daukaguz, nork ez ditu ezagutzen Tramana ta Brix edo Kitolis gogoangarria.

ZEAZKETAK: Zeazketak edo «deskripziñoak» egiten be *Garoa* da ohea: zeazketa geiago ta obeto egiñak daukaz, baiña emen be *Kresala* 'ren alde on bat agertu bear da: Itxasoko zeazketa, ekaitzaren zeazketa, Kitolis'en edestiaren barruan, oso ederra da. Mundu guztiko elertian izan diran ekaitz-zeazketak lorategi eder baten batu ezker, *Kresala'n* agertzen dana onenatarikoa izango litzake.

IZKUNTZA: Euskereari begiratzen ba'dautsogu, ederra ta errikoa da Txomin'ek darabillena, *Kresala'n* bizkaiera eta *Garoa* 'n

gipuzkoera. Eta, bide batez esateko, ori da euskera baturako lenengo urratsa, euskalki bat baiño geiago erabiltea. Baiña *Garoa'ren* euskerea ederragoa ta jatorragoa da, batez be joskera aldetik begiratu ezker: Txomin'en aldian, oraindiño, idazleak ezin dabe itzi erdel joskera. Bere aurretikoak, askok beintzat, joskera oso okerra dauke, eta Txomin'en, *Kresala'n* egokiak ez diran ainbat esaldi erabilili arren, *Garoa'n* sekula ez dau olako utsik egiten.

* * *

EGAZKADAK


Elerti-arloan idazle baten lanak egaztien egaskadakaz bardindu edo konparatu leikez eta batzui buruz «oilloen egazkada laburrak» dituela esan lei, beste batzuk ostera arranoen antzera goi-maillako egazkadak egiten ei ditue.

Gure Txomin'eri buruz, gaurko idazle batek Muga aldizkarian «vuelos gallinaceos» egin zituala esan eban. Baiña idazle ori, naizta asko idatzi, elduko eta da gure elertian Txomin'en ospe illeziña lortzera? Eza ete dira bereak izango benetako oillo-egazkada laburrak?

Txomin Agirre euskal-elertiaren barruan il-eziña da eta bere aldian arranoen maillara eldu da. Bera dogu Euzkadi'ren ospea eta Ondarru'ko erriaren aintza.

OLAZAR'tar Martin'ek
*Ondarroa'n, 1980'ko bagillaren
21'ean izandako berbaldia.*

3.^a



2'garrenari erantzuna


GORRI

- 12 IZKI'koak irracional tataranieto yeterinario
- 11 IZKI'koak historieta historieta
- 10 IZKI'koak tumulto, dissputa recurrir enarenar
- 9 IZKI'koak reloj
- 8 IZKI'koak observatorio en cuanto a mí designar, señalar tambor nauseabundo cuitado, miserable de tiempo atrás

- relámpago lugar de silencio tibieza solterona
- 7 IZKI'koak lengua vasca poatura adornar terminiar/ultimar sin querer testamento facultad de pensamiento tenazas de pelo acial Sur, mediodía
- 6 IZKI'koak desear, ser estar seco inflar, aventar aparecer lo mejor posible época de hambre charco, manantial al parecer aprovechar, provecho sombra (la) mayor, superior seña compasión
- 3 IZKI'koak cuatro tres

- 5 IZKI'koak tierno daño al parecer nube del ojo perder totalmente mella, modulación bastante dolor, tormento vaso, buque hervir centenario azote, castigo norma, modelo nocturno mulo registro, tacha último
- 4 IZKI'koak pronto, ligero leche ortiga hoy una vez vino, licor cuál? gabcho, colgador hasta

2.^a



UTZUNEAK ZUZENDU

Alboan dozuzan 10 esaldi edo frase oneitan, gramatika edo joskera edo ortografia aldetik utsune batzuk agertzen dira. Zuk topau bear dozuz. Erantzuna azkenengo orrialdean.

- 1.—Gure etxea ez da zueña baño aundia.
- 2.—Zuek niri berebilla apurtu dauste.
- 3.—Gaur goizean irratia apurtu yatan.
- 4.—Zenbat sor dautzut?
- 5.—Ia datorren igandean etorten ba zara.
- 6.—Nik ez dot ezebez artuko.
- 7.—Ekarri daustazu ardaoa, oso ona da.
- 8.—Nor esan dautzu ori?
- 9.—Une onetan ikasten ari dabe.
- 10.—Len zure lagunari ikusi dot.

a b d d e f g i j k l ll m n ñ | o p r r' s t tt ts tx tz u x y z ¿?

10	1	11	21	5	7	1	19	8	1	26	14	3	8	10	16	1	3	1
7	1	26	18	10	16	26	19	26	14	8	18	26	3	8	29	10	8	14
7	1	20	21	5	11	1	18	14	5	7	1	18	7	1	19	8	1	
14	16	8	29	1	18	21	5	5	7	16	14	7	16	7	1	18	1	
7	5	26	18	5	26	19	26	14	8	18	26	3	8	29	10	8	14	
2	1	18	8	10	30													

7 16 19 8

EUSKERA ZALEAK

NORTASUNA TA EUSKERA

Gizon bakoitzak bere errian eta bere inguruan osotzen dau bere nortasuna eta orretarako biderik egokiena ta zabalena berbeta dau.

Berbeteak, izkuntzeak, pentsakerea ta izakerea bere barruan daroaz eta bere ingurukoen izakereagaz bat egiteko erarik ziurrena da.

* * *

Orregaitik, benetan euskalduna izateko, izakeraz eta jokabidez Aitor'en seme lez agertzeko, bear bearrekoa dogu euskerea.

Ez da ba gaurkokeri bat, beste barik, euskerea ikastea. Euskalerrria maite dauanak berbeta au ikasten eta irakasten alegin aundia egin bear dau. Ondo esana da euskera barik ez dagoala EuskalerrriTik. Txalogarriak gaur euskerea ikasten alegintzen diranak.

* * *

Ikasten dogun euskereak beragan gure aurretikoak itzi dauskuen aberastasun eta euskaltasun guztia izan bear dau, bere aldean, eta orretarako errian sustraiak dituan berbeteak izan bear dau.

Orra or zergaitik EUSKERAZALEAK ain gogotsu jokutzen dauan euskalkien edo erriko izkeren alde: Ortxe dago, ain zuzen, gure aurretikoen etorvide guztia.

Urterik urtera jakintza aldatu egiten da eta or dago izkuntzarentzat arrisku bat.

Baserritarren jakintzaz guztiak genkian «goldea» zer an, liñagiñen al-dian ba-ekien umeak «gorua» zer zan edo ogigiñen baserrian labako «ipizkia» zer zan guztiok genkian. Gaur iru itz orreik eta beste asko eta asko galduak doguz.

Eta «radar», «brucelosis» edo «tractor» zer diran ba-dakigu gaur, baiña euskaldunak ez dogu asmau gauza orreik adierazteko berba egokirik.

Ameriketean «carro» esaten dau-tsoe berebillari, baiña guk «burdia» esan barik izen barri bat asmau dogu oraintsu, erriak «kotxea» esaten dauan artean.

* * *

Egokia deritxagu EUSKERAZ AINTZAT aspaldion «Euskera lantzen» ekiñaldiaren bidez egiten dauan lanari. Itzak erriratu egin bear.

Benetako euskaldunak izan gura ba'dogu, euskerea ikasi, egin eta idatzi dagigun, baiña euskera aberatsa, ederra, egokia, erreza.

Saski-naski

"Selecciones" illerokoa euskeraz

Saski-naski

IRAKURGAi atsegifak euskera on eta errezean

Saski-naski ' k

dakizun euskera apaindu egingo dautzu

Saski-naski ' k

kasten dozun euskerea erreztu egingo dautzu

Saski-naski

irakurri, zabaldu

Saski-naski

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia